

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Foru Plana 2025-2027 Gipuzkoan

KUDEAKETA EREDUA

3

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Foru Plana Gipuzkoan 2025-2027. Kudeaketa eredua.

Sustatzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa.

Laguntza teknikoa: AIA ABEE: Eraberria Gunea SL eta Ibain Consultoría SL.

2025

Aurkibidea

1. Aurkezpena

1. or.

2. Lan egiturak eta prozesuak

3. or.

2.1. Kudeaketa egiturak

4. or.

2.2. Lan prozesuak

8. or.

3. Adierazle sistema

11. or.

3.1. Testuinguru adierazleak: IV. Foru Planaren helmugak

12. or.

3.2. Eraitza adierazleak

14. or.

4. Aurrekontua

17. or.

4.1. IV. Foru Planera bideratutako aurrekontu orokorra

18. or.

4.2. IV. Foru Planaren aurrekontua, proiektu, arduradun, kapitulu eta urtearen arabera

19. or.

01.

Aurkezpena

Gipuzkoako emakumeen eta gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana 2025-2027 (aurrerantzean, *IV. Foru Plana*) osatzen duten hiru dokumentuetatik hirugarren honetan Planaren **Kudeaketa Ereduaren** berri ematen da. Bertan zehazten da hartutako konpromisoak betetzen eta gainbegiratzen direla bermatzeko diseinatutako egituren, prozesuen eta mekanismoen multzoa. Horren artikulazioak kudeaketa eraginkorra ahalbidetuko du, plangintzaren iraunkortasuna ziurtatuz eta erabakiak modu parte hartzailean, koordinatuan eta *IV. Foru Planaren* misioarekin eta helburuekin bat etorriz hartzea bermatuz.

IV. Foru Planaren kudeaketan erronka nagusietako bat da berdintasunerako foru politikaren zeharkako izaera aintzat hartuko duen eredu bat txertatzea. Horretarako, ondoko elementu hauek kontuan hartuta bideratu da kudeaketa sistemaren definizioa:

- Berdintasunerako erreferentziazko araudia, *Emakumeen eta gizonen berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Araua*, berdintasunerako foru antolaketa finkatzen duena.
- Bideragarria izango den eta erakunde osoak bere egin eta barneratuko duen **arkitektura instituzional** baten diseinua. Arkitektura horrek ahalbidetu behar du konpromiso politikoa eta teknikoa plangintzarekin dinamizatzea, eta, gainera, *Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoaren* kudeaketa ereduak aurreikusten dituen egiturekin lerrokatuta egotea.

Kudeaketa eredu honetan funtsezkoa da arkitektura instituzional bat zehaztea; izan ere, berdintasunerako foru plangintzen aurreko aldiekin alderatuz, berritu egin dira lan ikuspegia eta lan metodologia. *IV. Foru Planetik* aurrera, logika estrategikoagoa hartzen du genero ikuspegia foru politika orokorrean txertatzeak, konpromiso politiko eta tekniko handiagoa eskatzen du honako arrazoi hauengatik:

- Alde batetik, proiektuak bideratzen edo batera gidatzen dituzten foru zuzendaritzek eta zerbitzuek proiektu horiek sustatu eta abiarazi behar dituztelako.
- Bestetik, foru zuzendaritza eta zerbitzu guztiek, *IV. Foru Planean* duten erantzukizuna gorabehera, beren zeharkako plan operatiboan edo plan sektorialen bidez, beren politikak interpelatzeko dituzten berdintasun agindu arauemaeleei erantzuten jarraitu behar dutelako.
- **Lan prozesu** arinak abiaraztea, *IV. Foru Planeko* proiektuen urteko programazioa errazteko, neurriak txertatzeko, *IV. Foru Planeko* proiektuen eta helburuen jarraipena egiteko eta, azkenik, Gipuzkoako emakumeen eta gizonen arteko berdintasun benetako eta eraginkorrerako emaitzen eta haien eraginaren ebaluazioa egiteko.
- Sistema bat antolatzea, berdintasunaren aldeko mugimendu feminista eta emakume elkarteak, besteak beste, **parte hartzeko eta solaskide izateko** aukera emango duena. Gobernantza kolaboratiboak emakumeen eta gizonen berdintasunaren lorpenen erantzukizuna duten maila eta esparru desberdinen arteko lankidetzak eskatzen du, eta, beraz, planaren kudeaketan ezinbestekoak dira parte hartze soziala, **gardentasuna** eta **kontuak ematea**. Jarraian, *IV. Foru Planaren* kudeaketa sistema azaltzen da. Bertan, plana abiarazteko aurreikusitako lan egiturez eta prozesuez gain, proiektuen eta helmugen jarraipena egiteko erabiliko diren testuinguru adierazleak eta emaitza adierazleak jasotzen dira, baita sistema garatzeko aurreikusitako aurrekontua ere.


02.

Lan egiturak eta prozesuak

2.1. KUDEAKETA EGITURAK

Atal honetan daude jasota *IV. Foru Planak* abian jartzeko dauzkan egiturak. Egitura horiek elkarren mendeko hiru mailatan antolatzen dira:

- **Maila politiko eta estrategiko** bat, *IV. Foru Planaren* sustapenez eta hartu beharreko erabakiez arduratzen dena. Maila honetan daude **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa**, *IV. Foru Planaren* sustapenez eta koordinazioaz arduratzen dena, eta **Proiektuen arteko Mahaia**, planaren lidergo politikoa bere gain hartuko duena.
- **Maila operatiboa**, espezifikoagoa eta aplikatua, *IV. Foru Plana* osatzen duten sei proiektu estrategikoak abian jartzea bermatzeko helburua duena. Maila hori bi espazio osagarriren bidez egituratzen da:
 - *IV. Foru Planaren* **Sustapen eta Jarraipen Taldeak**, proiektu bakoitza bultzatzeko eta kudeatzeko berariaz sortuak.
 - Proiektuen **Talde Eragileak**, proiektuak ezartzeko prozesuan etengabe hobetzeko eta ikasteko gunetzat hartzen direnak. Sustapen eta Jarraipen Taldeetan ez bezala, talde horiek ez dira berariaz *IV. Foru Planerako* sortuak. Oro har, Aldundian lehendik dauden languneak dira, eta proiektu estrategikoen zerbitzura jartzen dira. Haien eginkizun nagusia da proiektuen gauzatzea optimizatzea eta indartzea, esperientzia eta ezagutza espezializatua eskainiz.
- **Parte hartze** soziopolitikoko **maila**, GUNEAREN bidez, GUNEA baita mugimendu feministaren eta berdintasunaren aldeko emakume elkarten partaidetzarako eta elkarriketarako espazioa.



MAILA POLITIKO-ESTRATEGIKOA

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako organoa

- Zeharkako organo honek sustatu behar du *IV. Foru Plana*. Gainera, arauz esleituta dituen eginkizunak kontuan harturik, plangintza koordinatu eta jarraipen lanak eta ebaluazioa egin behar ditu.
- Berdintasunerako Organoak orientatuko ditu proiektuen lidergoaren arduradun edo erantzukide diren foru zuzendaritzak eta zerbitzuak egikaritze prozesuan zehar.
- *IV. Foru Planean* dituen eginkizunen artean, barne eta kanpo komunikazio ekintzen garapenaz arduratuko da, eta *IV. Foru Planaren* emaitzen eta eraginaren gardentasuna eta kontu emateak bermatuko ditu.
- Era berean, mugimendu feminista eta berdintasunaren aldeko emakume elkarteak sustatzeko eta ahalduztzeko laguntza emango du, hainbat dinamika eta praktikaren bidez *IV. Foru Planaren* hedapenean elkarrikeria eta parte hartzea ahalbidetzeko.

Proiektuen arteko Mahaia

- Berritik sortutako egitura honek bere gain hartuko ditu *IV. Foru Planaren* lidergo politikoa eta zortzi helmugen jarraipena.
- Proiektuen arteko Mahaia ikuspegi orokorra eta estrategikoa emango dio *IV. Foru Plana* ezartzeko prozesuari. Erabakiak hartzea eta sortzen diren beharrei erantzutea errazte aldera, Proiektuen arteko Mahaia *IV. Foru Planaren* urteko jarraipen txostenak izango ditu eskura.
- *Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoaren* berdintasunerako zeharkako ildoan eta helburu estrategikoen jarraipen Mahaiaekin lerrokatzea da Proiektuen arteko Mahaia eskaintzen duen gai garrantzitsuenetakoa bat. Izan ere, berdintasunerako foru egiturak optimizatzeko, Plan Estrategikoaren berdintasun helburuen gaineko jarraipena egiteko Mahaia egingo du *IV. Foru Planaren* jarraipena. Horrela, Mahaia funtzionalitate bikoitza izango du, *IV. Foru Planaren* zeharkako jarraipenari eta *Plan Estrategikoaren* berdintasun helburuei lotuta.
- Urtean behin egingo du ohiko bilera. Ahaldu Nagusia izango da buru, eta bertan parte hartuko dute Berdintasunerako Organoak eta *IV. Foru Planeko* proiektuen lidergoaren ardura duten foru zuzendaritza eta zerbitzu guztiak.

MAILA OPERATIBOA

Proiektuak bultzatzeko eta haien jarraipena egiteko taldeak

- Talde horiek arduratuko dira, maila operatiboan, proiektu estrategikoak bultzatzeaz eta haien urteko jarraipena egiteaz. Horien bitartez hausnartuko da neurrien bilakaerari buruz, eta horiei lotutako aukerak eta hobetzeko arloak identifikatuko dira.
- **Proiektuak bultzatzeko eta haien jarraipena egiteko 6 talde** antolatuko dira. Haietako bakoitzean parte hartuko dute proiektu bakoitza bideratzen edo batera gidatzen duten foru zuzendaritzak eta zerbitzuak, Berdintasunerako Organoarekin batera, izan ere, azken hori izango da taldeak osatzeaz, dinamizatzeko eta kudeatzeko arduratuko dena.
- Taldeek urtean bi aldiz egingo dute ohiko bilera, **helburu** hauekin:
 - Proiektuak bultzatzeko, lan hori erraztu ditzaketen ekintzak aurreikusiz, eta haien eboluzioa baloratzeko, egin beharreko egokitzapenak eginez. Lan saio hori urteko lehenengo seihilekoan egingo da.
 - Proiektu bakoitzaren urteko azken jarraipena egiteko, hurrengo urterako lehentasunezko lanak identifikatzeko eta dagokion lan programa egiteko. Lan saio hori urte amaieran egingo da.

Proiektuen talde eragileak

- Talde era berean operatibo hauek langune irekiak dira, eta proiektuetako neurriak txertatzeko helburuarekin lotuta daude, kontraste espezializatuaren bidez eta edukiak hobetuz.
- Proiektu bakoitzaren ardura duen zuzendaritzak edo zuzendaritzek sustatzen dituzte talde eragileak. Talde horietan foru zuzendaritzek eta zerbitzuek parte har dezakete, baita proiektuentzako erreferentziazkoak diren beste entitate eta erakunde batzuek ere, Aldundiarekin harremanak izan arren Aldundiarena zati ez direnek.
- Talde horiek aukera ematen dute foru zuzendaritzak eta zerbitzuak barne mailan eta kanpoko interes taldeekin egiten ari diren lana optimizatzeko, dagoeneko sortuta dauden eta funtzionatzen ari diren langune kolaboratiboen bidez.
- Kasu honetan, proiektu bakoitzean sortzen diren dinamiken arabera izango da lan saioen maiztasuna.

Txertatze prozesuan zehar, proiektu hauetan parte hartuko dute talde eragileek:

PROIEKTUAK	TALDE ERAGILEAK
1. proiektua . Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Behatokia Gipuzkoan.	Idazkaritza Teknikoen lan-eremua.
2. proiektua . Berdintasunerako foru politika ezartzeko kalitate estandarrak.	Departamentuetako Berdintasunerako Unitateen langunea.
3. proiektua . Berdintasunean eragin positiboa izango duen foru aurrekontua.	Ogasunak, Funtzio Publikoak eta Berdintasunerako Organoak osatutako langunea.
4. proiektua . Begirada Lurraldeari: kalitatezko estandarrak Berdintasunerako Tokiko Politiketan.	- Gune politiko-teknikoa, berdintasunerako tokiko politiken sustapenean bidea egin duten tamaina askotako tokiko erakundeetako ordezkariekin osatua. - Langunea Gipuzkoako tokiko erakundeetako berdintasun teknikariekin eta Emakumeen Etxeetako dinamizatzaileekin.
5. proiektua . Hurbiltasunetik zaintzea – Zaintzen kooperatibak bultzatzea	Zaintzen arreta publiko komunitarioarekin lotutako barneko eta lurraldeko eragileekin lan egiteko gunea.
6. proiektua . Emakumeen ahalduntzea Aldundiak indarkeria matxistari egiten dion arretaren bidez	AMUUN langunea, indarkeria matxista jasan duten Emakumeak Artatzeko Zerbitzu sarearen parte diren erakunde guztiek eratua.

PARTE HARTZE MAILA

GUNEA

- GUNEA da mugimendu feministaren eta berdintasunaren aldeko emakume elkarteen partaidetzarako eta elkarrizketa soziopolitikorako espazioa.
- Gune honen lan metodologiaren bidez, bertan ordezkaturako elkarteek elkarren artean solastatuko dira eta parte hartuko dute *IV. Foru Planaren* hedapenean.
- Gune honek *IV. Foru Planaren* parte hartze eraginkorra izan dezan bermatzeko, Berdintasunerako Organoa arduratuko da GUNEAREN lana bideratzeaz eta dinamizatzeari, bai planaren jarraipenari dagokionez, bai proiektu estrategikoak inplementatzeko proposamenak lantzeari dagokionez. Horretarako, urtean bi bilera egingo dira: bata proiektuak txertatzeko prozesuan zentratua, eta bestea plangintzaren urteko jarraipenera bideratua.

2.2. LAN PROZESUAK

IV. Foru Planaren hedapena modu eraginkorrean eta etengabeko hobekuntzako ziklo baten zati gisa antolatzea eta koordinatzea ahalbidetuko duten jardueren multzoa dira lan prozesuak. Jarraian deskribatzen diren prozesuak garatu ahal izateko ezinbestekoa da sortuta egotea *IV. Foru Planaren* aurreikusitako kudeaketa eta koordinazio egiturak.

■ Programazioa

Urteko programazioen arabera garatuko da *IV. Foru Plana*. Proiektuak bideratzen edo batera gidatzen dituzten foru zuzendaritzek eta zerbitzuek, Berdintasunerako Organoaren aholkularitza teknikoarekin batera, zehaztuko dute hurrengo urtean aplikatuko dituzten neurrien multzoa. Informazio hori oinarri hartuta, neurriei lotutako egikaritze adierazleak zehaztuko dira, eta eska litezkeen aholkularitza eta trebakuntza beharrak identifikatuko dira.

Proiektu bakoitzari begira **Sustapen eta Jarraipen Taldeetan** koordinatuko eta adostuko da programazio lana. Saio horietan, Berdintasunerako Organoak proiektu bakoitzari begira egindako programazio proposamena aztertuko du eta, hala badagokio, hobetzeko proposamenak egingo ditu.

Programazio sistema hori urtero errepikatuko da, eta sortzen den informazioak elikatuko du *IV. Foru Planaren* jarraipen prozesua.

■ Inplementazioa

Proiektu estrategikoen arduradun edo erantzukide den foru zuzendaritza eta zerbitzu bakoitzak neurriak txertatuko ditu urtero programatutakoaren arabera. Inplementazio prozesua proiektu estrategikoen **talde eragilean** lanarekin aberastuko da, eta talde horien hausnarketak eta lanak edukiak egokitzea eta programazioak berrikustea edo doitzea ahalbidetuko dute.

■ Jarraipena

IV. Foru Planaren jarraipena sistematikoki egingo da urte bakoitzaren amaieran. Horretarako, proiektuen arduradun edo erantzukide den foru zuzendaritza eta zerbitzu bakoitzak testuinguru adierazleen, emaitzen eta proiektuen gauzatze mailaren berri emango du. Informazio horrek aukera emango du programatutakoa eta gauzatutakoa alderatzeko, eta helburuen lorpenean lagunduko duten gakoak eta, halakorik badago, proiektuen garapena zailtzen duten oztopoak identifikatuko ditu.

Proiektuen jarraipena **Sustapen eta Jarraipen Taldeetan** egingo da, eta jarraipenaren emaitzak osatuko dituen informazio kualitatiboa ere jasoko da langune horretan.

Prozesu horretan, Berdintasunerako Organoak *IV. Foru Planaren* urteko jarraipen txostena egingo du, eta **Proiektuen arteko Mahaian** aurkeztuko du. Txosten hori oso baliagarria izango da **GUNEAK** *IV. Foru Planaren* jarraipenean parte hartu ahal izan dezan.

▪ Ebaluazioa

Elkarren mendekoak dira *IV. Foru Planaren* jarraipen eta ebaluazio prozesuak. Jarraipen emaitzetatik abiatuta egingo da ebaluazioa, planaren indarraldiaren amaierarekin bat egingo duena.

IV. Foru Planaren jarraipen txostenek eta adierazleek eskainiko duten informazioaz gain, baloraziozko analisi batekin osatuko da ebaluazioa, eta bertan aintzat hartuko dira funtsezko eragile batzuek plangintzari eta emaitzei buruz eskaintzen dituzten ikuspegia eta iritzia. Ebaluazioaren ondorioek eta gomendioek aukera emango dute ezagutza sortzeko eta hurrengo plangintzaldian kontuan hartu beharreko elementuei buruzko erabakiak hartzeko, etorkizunean berdintasunaren arloan bultzatu nahi diren ekintzak barne.

Berdintasunerako Organoak bultzatuko du *IV. Foru Planaren* azken ebaluazio txostena egiteko lana.

Adierazle sistema

IV. Foru Planaren jarraipen eta ebaluazio eredua hiru adierazle motatan oinarrituta egituratuko da: testuinguru adierazleak, emaitza adierazleak eta egikaritze adierazleak. *IV. Foru Plana* inplementatzen den neurrian doitu eta osatu ahal izango da adierazle sistema.

- **Testuinguru adierazleak:** adierazle hauek *IV. Foru Planaren* eragina neurtzen dute, eta estu lotuta daude 8 helmugekin. Adierazle neurgarriak eta fidagarriak dira, plangintzaren bidez lortutako aldaketak eta aldaketa horiek lortzeko bultzatutako proiektuen eraginkortasuna ebaluatzeko diseinatuak.

Testuinguru adierazle bakoitza oinarri urteko balioarekin eta espero den azken balioarekin, 2027rako ezarritako helmugari dagokionarekin, aurkezten da. Garrantzitsua da zehaztea azken balioak urte horretako helmugari begira dagoen azken datu ofizial eskuragarria islatuko duela.

- **Emaitza adierazleak:** adierazle hauek proiektuen helburuen betetze maila neurtzen dute. Proiektu bakoitzaren irismenari eta eraginkortasunari buruzko funtsezko informazioa eskainiko dute.
- **Egikaritze adierazleak:** *IV. Foru Planeko* neurriei lotutako adierazleak dira, Planaren egikaritze maila neurtzeko diseinatuak. Oso informazio baliagarria eskainiko dute planaren urteko jarraipena egiteko. Urteko programazioetan oinarrituta formulatuko da.

Hurrengo kapituluan aurkezten dira *IV. Foru Planaren* testuinguru adierazleak eta emaitza adierazleak.

▪ Aurrekontua

*Berdintasunerako Legeak*¹ ezartzen duenez, foru administrazioek urtero esleitu eta zehaztuko dituzte beren aurrekontuetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak garatzeko baliabide ekonomikoak.

Arauzko aginduari jarraiki, *IV. Foru Planerako* aurreikusitako gastuaren zenbatespena egin da, azken kapituluan zehatz-mehatz jaso dena. **2025-2027 aldirako 1.347.527,27 euroko** kopurura iristen den aurrekontuak, hainbat aldagairen arabera banakatuta aurkezten denak, agerian uzten du *Aldundiak IV. Foru Planaren* garapenarekin duen konpromisoa. Aurreikusitako aurrekontua, langile gastuak (I. kapitulua) eta kudeaketaren berezko gastuak barne hartuta, urterik urte doitu ahal izango da proiektuen urteko programazioen garapenaren arabera.

IV. Foru Planean erantzukizuna duten foru zuzendaritzek eta zerbitzuek **EBAn** (Gipuzkoako Foru Aldundiaren emaitzetara bideratutako aurrekontu sistema) irauliko dute beren proiektuetan garatuko dituzten neurriei esleitutako aurrekontua. Neurri horiek, sisteman bertan erabilitako nomenklaturari jarraiki, **berdintasunerako ekintza nagusitzat** hartuko dira.

¹ Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina, martxoaren 16ko 1/2003 Legegintzako Dekretuak onartua.

03.

Adierazle sistema

3.1. TESTUINGURU ADIERAZLEAK: IV. FORU PLANAREN HELMUGAK

1. HELMUGA.: EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERTINTASUN MAILA GIPUZKOAN

Gipuzkoako Genero Bertintasunaren indizea handitzea 2027an 75 puntu iritsi arte.

ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	BALIOA GIPUZKOAN (Oinarri urtea)	HELMUGA 2027an
Genero bertintasunaren indizea Gipuzkoako Foru Aldundian	Gipuzkoako emakumeen eta gizonen arteko berdintasun mailaren laburpen adierazlea, 31 adierazletan oinarrituta. Adierazle horiek hierarkikoki daude egituratuta sei dimentsiotan (enplegua, dirua, ezagutza, denbora, boterea eta osasuna). Indizearen balioa.	74,5 2021. urtea	75,0

2. HELMUGA. BERTINTASUNERAKO AURREKONTUA

Pixkana handitzea Gipuzkoako Foru Aldundiak berdintasunerako politikak garatzeko duen aurrekontua, Bertintasunerako Legeak ezartzen duen % 1,5era iristeko.

ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	BALIOA GIPUZKOAN (Oinarri urtea)	HELMUGA 2027an
Gipuzkoako Foru Aldundian emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika bultzatzeko aurrekontua	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako foru politika bultzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketa aurrekontu propioaren portzentajea (Berdintasunerako Organoaren aurrekontua + Departamentuetako Bertintasunerako Unitateen aurrekontua + Bertintasunerako ekintza nagusien aurrekontua EBAn) (%)	% 0,95 2024. urtea	% 1,5

3. HELMUGA. KALITATE ESTANDARRAK BERTINTASUNERAKO FORU POLITIKETAN

Berdintasunerako Foru Arauak eta Bertintasunerako Legeak esleitzen dizkieten helburuak betetzeko, Bertintasunerako Organoak eta Departamentuetako Bertintasunerako Unitateek langile espezializatuak eta aurrekontu zuzkidura nahikoak izan ditzaten lortzea.

ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	BALIOA GIPUZKOAN (Oinarri urtea)	HELMUGA 2027an
Kalitate estandarren aplikazioa Gipuzkoako Foru Aldundiaren berdintasunerako politikan, berdintasunaren arloko teknikari plazei eta aurrekontu zuzkidurari dagokienez	Berdintasunerako Organoko eta Departamentuetako Unitateetako teknikarien artean administrazio publiko batek edo unibertsitate batek emandako 300 ordutik gorako prestakuntza espezializatua dutenen portzentajea, foru berdintasuneko teknikari guztien aldean. (%).	% 41,60 2024. urtea	% 62,40 (+% 50)
	Berdintasunerako Organoaren eta Departamentuetako Bertintasunerako Unitateen aurrekontu osoaren gehikuntzaren portzentajea (I. eta II. kapituluak), identifikatutako langile beharrei dagokienez. (%).	% 0,24 2024. urtea	% 0,30 (+% 25)

4. HELMUGA. TREBAKUNTZA BERDINTASUNEAN			
Baldintzak sortzea Gipuzkoako Foru Aldundiko langileek berdintasunaren arloko oinarrizko prestakuntza, progresioa, iraunkorra eta derrigorrezkoa izan dezaten.			
ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	BALIOA GIPUZKOAN (Oinarri urtea)	HELMUGA 2027an
Berdintasunaren arloko oinarrizko prestakuntza jasotzen duten Gipuzkoako Foru Aldundiko langileak	Berdintasunaren arloan gutxienez 20 orduko oinarrizko prestakuntza jasotzen duten enplegatu publikoen portzentajea, enplegatu publiko guztien aldean. (%).	% 7,68 2024. urtea	% 9,22 (+% 20)
5. HELMUGA. ZAINKETEN BALDINTZAK			
Etxeko eremuan zaintza kooperatibetan aritzen diren zaintzaileen kopurua % 30 inguru handitzea.			
ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	BALIOA GIPUZKOAN (Oinarri urtea)	HELMUGA 2027an
Etxeko eremuan zaintza kooperatibetan aritzen diren zaintzaileak	Etxeko eremuan eta Gipuzkoako zaintza kooperatibetan bazkide gisa aritzen diren zaintzaileen kopurua handitzea. (Kop.).	22 2024. urtea	29
6. HELMUGA. BERDINTASUNERAKO TOKIKO POLITIKAK			
Gutxienez % 40 handitzea berdintasunerako arloak eta berdintasunean espezializatutako langile berariazkoak dituzten Gipuzkoako udalen kopurua.			
ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	BALIOA GIPUZKOAN (Oinarri urtea)	HELMUGA 2027an
Berdintasunerako arloak eta berdintasunean espezializatutako langile berariazkoak dituzten Gipuzkoako udalerriak	Gipuzkoan berdintasunerako arloak eta berdintasunean espezializatutako langile berariazkoak lanaldi osoan dauzkaten udalerrien kopurua handitzea. (Kop.).	17 udalerri 2024. urtea	24 udalerri
7. HELMUGA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA			
Gipuzkoako Emakumeen etxeak abian eta martxan jartzeko pizgarriak ematea.			
ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	BALIOA GIPUZKOAN (Oinarri urtea)	HELMUGA 2027an
Emakumeen Etxeak dauzkaten udalerriak	Gipuzkoako Emakumeen Etxeetarako udal sarbidea duten Gipuzkoako udalerriak, Gipuzkoako udalerri guztien aldean. (Kop.).	44 udalerri (Emakumeen 14 Etxe) 2024. urtea	53 udalerri (+% 20)

8. HELMUGA. ARRETA ERAGINKORRA INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN

6. proiektua. Emakumeen ahalduntzea Aldundiak indarkeria matxistari egiten dion arretaren bidez

Aldundiaren baliabide espezializatuek artatzen dituzten emakumeen % 80k, indarkeria matxistaren biziraule direnek, esku hartzearen amaieran indarkeria dela eta bizi duten egoera hobetu dela sentitu dezatela lortzea.

ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA	BALIOA GIPUZKOAN (Oinarri urtea)	HELMUGA 2027an
Aldundiak arreta eman ondoren, emakumeen egoeran eta posizioan hobekuntzak hautematea	<i>Garaitu</i> zerbitzuan eta <i>Sexu Indarkeriari Arreta Integrala emateko Foru Zerbitzuan</i> artatu diren eta indarkeria matxistaren biziraule diren eta beren egoeran eta posizioan aldaketa positiboak sumatzen dituzten emakumeen portzentajea, bi baliabideetara jotzen duten emakume guztien aldean. (%). <i>Garaitu:</i> Indarkeria matxistaren biktimei arreta psikosoziala, sozio-hezitzailea eta sozio-juridikoa emateko zerbitzua.	Daturik ez*	% 80

*Proiektuaren zati gisa kalkulatu da 8. Helmugaren Oinarri Balioa.

3.2. EMAITZA ADIERAZLEAK

1. PROIEKTUA. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO BEHATOKIA GIPUZKOAN

ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA
Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Behatokiaren ezarpen maila	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Behatokiaren garapen eta ezarpen maila. Egikaritze mailaren emaitzak: "Txikia", "Ertaina", "Handia", "Oso handia"
Berdintasunerako Behatokiaren informazioaren baliagarritasuna	Behatokiaren informazioa beren politiken genero arrakalak aztertze baliagarritzat duten foru zuzendaritzen portzentajea, foru zuzendaritza guztien aldean. (%).

2. PROIEKTUA. BERDINTASUNERAKO FORU POLITIKA EZARTZEKO KALITATE ESTANDARRAK

ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA
Berdintasunerako Unitatea daukaten foru departamentuak	Berdintasunerako Unitatea daukaten foru departamentuen portzentajea. (%). Berdintasunerako Unitatea langile iraunkorrekin hornituta daukaten foru departamentuen portzentajea. (%).
Dedikazio eskusiboa duten berdintasun teknikariak	Berdintasunerako Organoko eta Departamentuetako Berdintasunerako Unitateetako teknikarien portzentajea, emakumeen eta gizonen berdintasun arloan dedikazio eskusiboa dutenak, berdintasunaren arloko foru teknikari guztien aldean. (%).
Foru Berdintasunerako Prestakuntza Plan Markoa definitzea	Gipuzkoako Foru Aldundiaren berdintasunaren arloko prestakuntza plan marko zehatz bat egotea.
Berdintasunerako Prestakuntza Plan Markoaren txertaketa	Berdintasunaren arloko oinarritzko prestakuntza, kudeaketa prestakuntza eta prestakuntza espezializatua jaso dituzten pertsonen portzentajea departamentu bakoitzean, sexuaren arabera bereizita. (%).

3. PROIEKTUA. BERDINTASUNEAN ERAGIN POSITIBOA IZANGO DUEN FORU AURREKONTUA

ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA
Genero ikuspegia aurrekontu plangintzan	Berdintasunerako helburuak eta ekintzak dituzten berdintasunerako "garrantzi handiko" aurrekontu programen portzentajea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren berdintasunerako "garrantzi handia" duten aurrekontu programa guztien aldean. (%).
Aurrekontu programen genero analisiaren asmoa	Aurrekontu programetan genero ikuspegia txertatzeko trebakuntza eta lan prozesuan parte hartzen duten foru langileen artean, aurrekontu programa hobetu dela eta haren genero analisisan sakontzen jarraitzea erabilgarria dela uste dutenen portzentajea. (%).
Aurrekontu zikloaren genero eraginaren ebaluazioa	Aurrekontu zikloan genero desberdintasunak murrizteko neurriak txertatzeko lan prozesuaren garapen maila. Egikaritze mailaren emaitzak: "Txikia", "Ertaina", "Handia", "Oso handia"

4. PROIEKTUA. BEGIRADA LURRALDEARI: KALITATEZKO ESTANDARRAK BERDINTASUNERAKO TOKIKO POLITIKETAN

ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA
Kalitatezko estandarren aplikazioa Gipuzkoako udaletako berdintasunaren arloko politika publikoetan	Dagozkien lanpostu zerrendetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako arlo espezifikoak dituzten udalerrien portzentajea, berdintasuneko arlo espezifikoak dituzten udalerrri guztien aldean. (%).
	Lanaldi osoan ari diren berdintasun teknikarien portzentajea, berdintasunaren arloko teknikari guztien aldean. (%).
	Gipuzkoako udaletako berdintasunaren arloko A mailako teknikarien portzentajea, lurraldeko udaletako berdintasunaren arloko teknikari guztien aldean (%).
	Berdintasunean espezializatutako langileak dituzten teknikari plazen portzentajea, berdintasun teknikari plaza guztien aldean. (%).
	Berdintasuneko betekizun espezifikoa duten teknikari plazen portzentajea, berdintasun teknikari plaza guztien aldean. (%).
Emakumeen Etxeen kalitate estandarren definizioa	Lurralde ereduari buruz adostutako gutxieneko baldintzak betetzen dituzten Emakumeen Etxeen portzentajea, Lurraldeko Emakumeen Etxe guztien aldean (%).
Emakumeen Etxeen Lurralde Ereduaren moldagarritasuna	Emakumeen etxeetarako sarbidea duten 10.000 biztanletik beherako udalerrriak, Gipuzkoan emakumeen etxeak dituzten udalerrri guztien aldean. (Kop.).

5. PROIEKTUA. HURBILTASUNETIK ZAINTzea - ZAINTZEN KOOPERATIBAK BULTZATZEA

ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA
Zaintzen kooperatibak sortzea	Zaintzen kooperatibak sortzeko prozesuaren garapen maila. Egikaritze mailaren emaitzak: "Txikia", "Ertaina", "Handia", "Oso handia" (kooperatiba bat sortzen da). Egikaritze mailaren emaitzak: "Txikia", "Ertaina", "Handia", "Oso handia"
Bazkide kooperatibisten kualifikazioa	Zainketetan eta kooperatiben kudeaketan trebatzeko prozesua amaitu duten emakumeen portzentajea, trebatzen hasi diren emakume guztien aldean (%).
Bazkide kooperatibisten kontratazioa	Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoaren (LPPE) bidez kontratatutako emakume kooperatibisten portzentajea, kontratatutako emakume guztien aldean. (%).
Bazkide kooperatibisten lan baldintzak hobetzea	Etxeko eremuan zaintzaile gisa lan egiten duten eta kooperatibako edo kooperatibetako kide izateagatik lan egoera hobetu duten (diru sarrerak handitzea eta laneko gogobetetze handiagoa) emakumeen kopurua. (Kop.).

6. PROIEKTUA. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ALDUNDIAK INDARKERIA MATXISTARI EGITEN DION ARRETAREN BIDEZ

ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA
Ahalduntze prozesuetan eragina neurtzeko sistema	<i>Garaituk eta Sexu Indarkeriari Arreta Integrala emateko Foru Zerbitzuak</i> artatutako emakumeen ahalduntze prozesuetan duten eragina neurtzeko berariazko metodologia bat izatea.
“Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistaren aurrean esku hartzeko eredua” hobetzea	Emakumeen aurkako indarkeria matxistari erantzuteko ereduan hobekuntzak inplementatzea, txertatutako hobekuntza motaren arabera.
Ikuspegi intersektzionala foru arretan	Indarkeria matxistaren biziraule diren eta desberdintasun egoera espezifiko bat eragin dezaketen hainbat faktore (adina, hizkuntza, administrazio egoera irregularra eta desgaitasuna) biltzen dituzten eta esku hartzearen amaieran beren egoeran eta posizioan hobekuntzak hautematen dituzten emakumeen portzentajea, diskriminazio horiei aurre egiten dieten emakume artatu guztien aldean. (%). <i>*Garaitu eta Sexu Indarkeriari Arreta Integrala emateko Foru Zerbitzua.</i>


04.

Aurrekontua

4.1. IV. FORU PLANERA BIDERATUTAKO AURREKONTU OROKORRA

PROIEKTUA	GUZTIRA 2025-2027*	%
1. proiektua. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Behatokia Gipuzkoan	244.387,86 €	%18,1
2. proiektua. Berdintasunerako foru politika ezartzeko kalitate estandarrak.	134.795,00 €	%10,0
3. proiektua. Berdintasunean eragin positiboa izango duen foru aurrekontua	234.120,41 €	%17,3
4. proiektua. Begirada Lurraldeari: kalitatezko estandarrak Berdintasunerako Tokiko Politiketan	120.125,00 €	%9,0
5. proiektua. Hurbiltasunetik zaintzea: zaintzen kooperatibak bultzatzea	122.000,00 €	%9,0
6. proiektua. Emakumeen ahalduntzea Aldundiak indarkeria matxistari egiten dion arretaren bidez	189.900,00 €	%14,1
IV. FORU PLANAREN KUDEAKETA	302.199,00 €	%22,5
GUZTIRA	1.347.527,27 €	% 100

* 2025-2027 aldirako aurrekontua, gastu arruntaren eta langile gastuaren aurrekontuaren baturaren emaitza.



4.2. IV. FORU PLANAREN AURREKONTUA, PROIEKTUA, ARDURADUNA, KAPITULU ETA URTEAREN ARABERA

Erreferentziak:

I = I. Kapituluaren aurrekontua (Langileak)

II = II. Kapituluaren aurrekontua

1. PROIEKTUA. GIPUZKOAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO BEHATOKIA GIPUZKOAN

ARDURADUNA: Estrategia

2025		2026		2027		TOTAL	
I	6.462,62	I	6.462,62	I	6.462,62	I	19.387,86
II	75.000,00	II	75.000,00	II	75.000,00	II	225.000,00
81.462,62€		81.462,62€		81.462,62€		244.387,86€	

2. PROIEKTUA. BERDINTASUNERAKO FORU POLITIKA EZARTZEKO KALITATE ESTANDARRAK

ARDURADUNA: Funtzio Publikoa / Berdintasunerako Organoa

AURREKONTUAREN BANAKETA:

- Funtzio publikoa: proiektu aurrekontuaren % 53
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Organoa: proiektu aurrekontuaren % 47

FUNTZIO PUBLIKOA

2025		2026		2027		TOTAL	
I	3.774,00	I	3.887,00	I	3.984,00	I	11.645,00
II	20.000,00	II	20.000,00	II	20.000,00	II	60.000,00

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ORGANOA

2025		2026		2027		TOTAL	
I	6.050,00	I	6.050,00	I	6.050,00	I	18.150,00
II	15.000,00	II	15.000,00	II	15.000,00	II	45.000,00
44.824,00€		44.937,00€		45.034,00€		134.795,00€	

3. PROIEKTUA. BERDINTASUNEAN ERAGIN POSITIBOA IZANGO DUEN FORU AURREKONTUA

ARDURADUNA: Ogasuna eta Finantzak / Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Organoa

AURREKONTUAREN BANAKETA:

- Ogasuna eta Finantzak: proiektu aurrekontuaren % 39
- Berdintasunerako Organoa: proiektu aurrekontuaren % 61

OGASUNA ETA FINANTZAK							
2025		2026		2027		TOTAL	
I	8.673,47	I	8.673,47	I	8.673,47	I	26.020,41
II	26.000,00	II	18.000,00	II	18.000,00	II	62.000,00
EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ORGANOA							
2025		2026		2027		TOTAL	
I	8.700,00	I	8.700,00	I	8.700,00	I	26.100,00
II	40.000,00	II	40.000,00	II	40.000,00	II	120.000,00
83.373,47€		75.373,47€		75.373,47€		234.120,41,00€	

4. PROIEKTUA. BEGIRADA LURRALDEARI: KALITATEZKO ESTANDARRAK BERDINTASUNERAKO TOKIKO POLITIKETAN

ARDURADUNA: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako organoa

2025		2026		2027		GUZTIRA	
24.050 €		57.100 €		57.100 €		138.250 €	
2025		2026		2027		TOTAL	
I	3.025,00	I	6.050,00	I	6.050,00	I	15.125,00
II	15.000,00	II	45.000,00	II	45.000,00	II	105.000,00
18.025,00 €		51.050,00 €		51.050,00 €		120.125,00 €	

5. PROIEKTUA. HURBILTASUNETIK ZAINTEA - ZAINZEN KOOPERATIBAK BULTZATZEA

ARDURADUNA: Agenda, Berrikuntza eta Ebaluazioa

2025		2026		2027		TOTAL	
I	4.000,00	I	4.000,00	I	4.000,00	I	12.000,00
II	25.000,00	II	40.000,00	II	45.000,00	II	110.000,00
29.000,00€		44.000,00€		49.000,00€		122.000,00€	

6. PROIEKTUA. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ALDUNDIAK INDARKERIA MATXISTARI EGITEN DION ARRETAREN BIDEZ

ARDURADUNA: Haurren Babesa. Gizarte Inklusioa eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistaren aurreko arreta

2025		2026		2027		TOTAL	
I	4.600,00	I	4.800,00	I	5.000,00	I	12.000,00
II	58.500,00	II	58.500,00	II	58.500,00	II	110.000,00
63.100,00€		63.300,00€		63.500,00€		189.900,00€	

AHOLKULARITZA, KOORDINAZIOA ETA JARRAIPENA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN IV. PLANEAN

ARDURADUNA: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako organoa

2025		2026		2027		TOTAL	
I	6.050,00	I	6.050,00	I	6.050,00	I	18.150,00
II	94.683,00	II	94.683,00	II	94.683,00	II	284.049,00
100.733,00€		100.733,00€		100.733,00€		302.199,00€	